

Eman botua **Eusko Alkartasunari**

INDEPENDENTEAK,
ILUSIOA BERPIZTUZ



INDEPENDENTEAK,
ILUSIOA BERPIZTUZ

NTEAK,
IZTUZ



INDEPENDENTEAK,
ILUSIOA BERPIZTUZ



INDEPEI
ILUSIOA

INDEPENDENTEAK,
ILUSIOA BERPIZTUZ



INDEPENDENTEAK,
ILUSIOA BERPIZTUZ



PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PREST!

ATE IREKIAK

etorrriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

OTSAILAK 7 - 11:00 larunbata **AULA MAGNA** ARRASATE-MONDRAGÓN
Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

OTSAILAK 26 - 17:30 osteguna **AULA MAGNA** ORDIZIA
Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OTSAILAK 12 - 18:00 osteguna **AULA MAGNA** OÑATI
Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

OTSAILAK 21 - 10:00-13:00 larunbata **AULA MAGNA** IRUN
Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OTSAILAK 19 - 18:00 osteguna **AULA MAGNA** ESKORATZA
Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

- **Kultura:** Santa Eskean baserriz baserri
- **Zer berri:** Inauterietako ekitaldien gida

soraluzeko
hamabostekaria **193.** alea
2009ko otsailaren 13an

pil-pilean



**ELKARBIZITZA,
elkarlanean gainditu
beharreko ikasgaia**

AURREZ ESKATUZ GERO
ETXERAKO JANARIA
PRESTATZEN DA

TXURRUKA
JATETXEA

943 75 15 81

bozkatu 
Jakin eta egin

MITINA

OTSAILAK 21, 12etan EIBARKO COLISEOan

PARTEHARTZAILEA:
JUAN JOSE IBARRETXE



 **iba
rre
txe**

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO



MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUZE, S.Coop.
Osintxu Auzoa
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 76 90 76
Fax. +34 943 76 51 28
E-mail: soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com



**MAITE KINTANILLA****GOTZON ELIZBURU**

SASI GUZTIEN GAINETIK

Kaixo Gotzon!
Gaurkuan tentuz eta poliki gerturatu nahi dot zugana. Pausotik pausora hurbiltzen noia... eta oin erantzuidazu, zer da sentitzen dozuna? Esaidazu bildurrik ez daguala tarteko, esaidazu hala dala.

Egin aztamuka oin arteko pasadizo bakoitzian... eta kontatu zenbat momentu daren ikararik barekuak, lasaittasun horren jabe... Eta zenbaketa horretan beste esku-muturrik bihar badozu eskatu bildurrik barik. Zenbat beldurrezko ipuin? Eta zenbat txikittan kontatu bare geratutakuak, koxkortzen goiazzen heinian bizitzen doguzenak... Eta hara! Gu geu askotan protagonista!

Kaleko ezkinak be ilun bilakatu dira... bapantian argiztatu eta gure "aktore" lanak kamararik ederrenekin grabatzeko. Eta Gotzon, ondo ikasi zure papela... bestela izuan izuz akabatuko zaittue (*uf! konfundidu naiz! Akabatuko zara...*) Ze entzun dot... pelikula honetan be kaskopian ezkututzen diran horrekin jardun biharko dogula "lanian" eta pelixan egiliak be betikuak dirala...

Txiki bihurtu nahi gaittue... bildurrez txikitxu... baina txikitasanian haundi garala erakusten jarraitukou eta euren antzerki bakoitzari muzin eitten, katamalo azpitan daguana benetako argiz erakusten.

Bildurtuta bizitzera kondenatu nahi gaittue; pelota, kamara, ilegalizaziño... ustelak erabiliz... gure buruen autoerreprimiziña da bide honen helmugia. Baina, bueno, ze! Ez gara ba kale iluneko kamarapian ikaratuta geratuko ezta? 🌀

Goguan hartzeko

"Kupel txarretik, ardo onik ez"

Euskal atsotitza

Kaixo Maite!
Tentuz eta poliki gerturatu zara neregana, eta zu zinala konturatuzian lasaittu ederra hartu dot Maite. Hemen ordia, iluntasun jainko horrek gu konturatu gabe etxeko sukalderraino sartzen dira. Eta gure sukaldeko pantailan ikusten dittugu egunero.

Beldurrezko ipuinak lehenengo aldixan baleike ikara haundixa ematia, batez be aurrez hain ondo prestatuta eta pentsatuta daren ipuinok. Baina bildurrezko ipuin hori bigarren aldiz, hirugarren aldiz kontatzerakuan, ez dao hainbesterako bildurrik ematen.

Gure ipuin kontalari hauek ordia, ez dira tontuak eta istorixua kontatzen daben bakoitzian detaile berri bat sartzen dotse, bildurra ematen segi daixen eta interesa pizten. Gauzak, ezerezetik bezela asmatzen dittue, eta noski pixkanaka kalidadia eta sinisgarritasuna galtzen doia iluntasun jainko hauen ipuina.

Batzuek ipuina ez jakuela gusztatzen ozen esaten dabe, baina zentroko tenplura juan eta makurtuta behin eta berriz eskatzen dabe ipuina berriz kontatzeko, ipuin horren kontura bizi dira eta. Eurek naitta edo nahi gabe, iluntasun jainkuan gurtzaile fidel bilakatuta.

Maite, ondorixo garbi bat ateratzen dot nik guzti hontatik: iluntasun jainkuak, hodei guztien gainetik bizi diran horrek, euren pisuz jausiko dirala sasi guztien azpira eta bai, guk lanian jarraituko dogu sasi guztien gainetik eta hodei guztixen azpittik, nik argi daukat eta zein dan nere papela. Ipuin, pelikula edo dana dalakuak aurrera darrai! 🌀

kontatu zenbat momentu daren ikararik barekuak

Maite Kintanilla

Iluntasun jainkuak, euren pisuz jausiko dira sasi guztien azpira

Gotzon Elizburu



GUTUNAK

EAJ-PNVk uste du asteburu arratsaldetan udaltzaingo zerbitzua ez egotea atzerapauso bat dela

Jeltzaleek dei egiten diote Udal Gobernuari *“hartu duen erabakia hausnartu dezan. Izan ere, asteburu arratsalde batean herritarrek larrialdi bat edukiko balute ez dute nora jo”*.

Otsailaren 4an buruturiko Osoko Bilkuran, EAJ-PNVk oposizioa osatzen duten beste alderdi politikoekin batera –PP eta PSE-EE –, urgentziatzko mozio bat aurkeztu zuen eztabaida eta bozketarako. Mozioan oposizio alderdiek honakoa eskatzen diote Udal Gobernuari (*Ezker Abertzalea / EA*): Asteburuetan Udaltzaingoaren zerbitzua arratsalde bertan behera uzteko hartutako erabakia hausnartu eta bazter dezan.

Jeltzaleen ustez, *“asteburuetan Udaletxea itxita dago eta herritarren batek arratsalde larrialdiren bat izango balu, nora jo behar du?”*.

Gazteok lotu independentziara!!

Beste eraso bat euskal herriari, PSOE-ren gobernuak alderdiak ilegalizatzen, gazteak krimilazizatzen, atxilotuak torturatzen... jarraitzen duen bitartean independentziaren aldeko milaka eta milaka lagunengatik ahotsa ilegalizatzen dute. PNVk berriz, honen aurrean isilik gelditu eta euskal herriari beste 30 urtetako iruzur berria bat egi-

EAJ/PNVren ekarpenak

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldeak 2009ko aurrekontuari egindako emendakinei erantzunez Udal Gobernu Taldeak adierazi nahi du jasotako 6 eskaeratik 5 onartu dituela :

-Erregetzeko lurren salmenta (ez onartua): aspaldi esan genuen ez dugula inongo intentziorik soilik erabilera pribaturako izango liratekeen aparkalekuak egiteko. Udal patrimonioa saldu aurretik aparkalekuen arazoari irtenbidea emateko beste aukera batzuk aztertzen ari gara.

-Kiroldegi gaina- Plaza Zaharra (onartuak): kiroldegiko gaina amaitzeko eta Plaza Zaharraren urbanizazioa exekutatzeko aurtengo aurrekontuetan konpromiso kredituak onartuko ditugu, 2010eangaratzeko. IZARTU egitasmoaren barruan jasota dagoen Kiroldegiko gainari dagokienez ez dakigu noiz izango den posible gaur egun etenda dauden lanak amaitzea. Hori Foru Aldundiaren esku dago eta esan beharrekoak esan zaizkio.

-Komun publikoak (onartua): guztiz ados gaude proposamenarekin, eta 30.000 € tako partida bat

Soraluzeko EAJ-PNVk uste du *“alkateak harturiko erabakiarekin Udalak ematen dituen zerbitzuetan atzerapauso nabarmena ematen dela”*. Ildo beretik, alderdi jeltzaleren iritziz, *“Udalaren helburua zerbitzu publikoak areagotzea izan beharko litzateke eta ez hauen murrizketa. Espero dugu Alkateak hartu duen erabakia hausnartuko duela eta denbora gutxiaren barru berriz ere Udaltzaingoaren zerbitzua asteburuetan arratsalde ipiniko duela”*.

Ildo berean, EAJ-PNVko udal taldeak helburuak oso argi dituela gogoratu du: *“Soraluzetarrei ahalik eta zerbitzu publiko egokienak ematea”*.

SORALUZeko EAJ/PNV UDAL TALDEA

tera doaz. Horregaitik independentziaren aldeko indarrak bildu eta kalera irteteko hautua egiten dugu gazte independentistek, iruzur berri hau gelditzera goaz!

Otsailak 19 Borroka Eguna 19:00etan Manifa plaza berritik

zehaztuko dugu. Dituen irisgarritasun arazoak kontuan izanda, Zubi Nagusikoak berriztea baino zuzenagoa iruditzen zaigu beste toki batean berriak egitea. Denon artean adostu beharko dugu komun berriak non egin.

-Maisuen etxeak alokairura (onartua): legealdi hasieratik Udal Gobernu Talde honen helburua etxebizitza horiek alokairu sozialera bideratzea izan da. Horretan dihardugu aspalditik, eta horretan jarraituko dugu buru-belarri.

-Nekazal arloko inbertsioak (onartua): azken emendakin hau ere onartzen dugu, eta 10.000 € tako partida gehituko dugu nekazal arloko inbertsioetan. Dagokion batzordean zehaztuko dugu zertara zuzendu diru kopuru hau, ze zuek azal dutako eskaera zehatzaren berri ez dugu jaso oraindik. Besterik gabe, mila esker aurtengo aurrekontuei proposamen zehatzak eta egingarriak aurkezteagatik.

Udal Gobernu Taldea

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldezkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Leire Iturbe, Enara Agirre, Jon Bausauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Nikolas Mendia
Mila Esker...

Aurtengo udazkenean gazteen mendi irteerak antolatzen hasi ginen plaentxiatar batzuk. Gure aurretik beste plaentxiatar asko aritu ziren, gazteak mendira zaltetzen. Gaur egun antolaketa hauetan hari garenok ere joaten ginen. MILA ESKER. Udazkenean antolakuntza lanean hasi ginenean, zalantza eta beldur askorekin haritu ginen: jendearen erantzuna nolakoa izango ote zen, eguraldi txarra bazen zer egin... eta lehen irteerarekin beldur eta zalantza guztiak joan ziren plaentxiatarrek eman ziguten erantzun bikainari esker horregatik MILA ESKER. Urteko azken irteeran Soraluze zeharmendi buelta egin eta baba-jana bat antolatu zen San Andresen. Mahaiak jartzeko, zerbitzatzeko eta ondoren dena jasotzeko jendea behar zen eta irteera horretara etorri zirenen artean egin zen dena, lagundu eta etorri zinetenei MILA ESKER. Udazkeneko arrakasta ikusita aurtengo udaberri eta udazkenerako berriz ere irteerak antolatzen hasi garela berri nahi dizuegu. Udazkenean etorri zinatek berriz errepikatuko duzuelakoan eta etorri ez zinatek probatuko duzuelakotan aurretik MILA ESKER. Eginiko gauza onak kontutan izan eta gaitzki eginikoak ondo egiten lagunduko diguzuelako MILA MILA ESKER.

((ENTZUTEKUAK))

Udalak zabalduko Gaztetzokoa Kukumixokoen zaintzapean.

Jolasa tresna eta aldi berean jolasa helburu. Zer da gaztetzokoa?

Gaztien aisialdirako eskaintza zabala duen gune bat da gaztetzokoa.

Zein izango da gaztetzokoaren arduraduna?

Ardura nagusia, Kukumixo Aisialdi Taldearen eskuetan geratuko da. Gure erronka nagusia, gaztetzokoari talde izaera ematea izango da. Horretarako, begirale ezberdinek hartuko dugu parte honen kudeaketan.

Ze adin tartekoeri dago zuzendua?


12 eta 16 urte bitartekoei. DBHko lehenengo maila eta laugarren maila bitartean daudenentzat.

Zein da gaztetzokoaren helburua?

Helburu nagusia Soraluzeko gazteei aisialdiari eskaintza luzatzea izango da. Beraien artean, harremanak landu, euskara bultzatu, herriko kultura ezagutu... . Hau dena ekimenen bitartez egiteko asmoa dugu. Azken finean, aipatutakoak lortzeko tresna bat moduan ikusten dugu Gaztetzokoa.

Zer eskainiko du gaztetzokoak?

Gazteentzat zuzendutako urte guztirako egitaraua. Tailerrak egingo ditugu, eskulanak, ma-



hai inguruak, irteerak... gazteen nahiak entzun eta hauek bideratzea izango da gure erronka nagusia.

Ze ordutegi izango du?

Hasiera batean asteburuetan zabalduko da, 17:00 eta 20:00etara. Aurretiko aste barruan ere zabalduko aukera aztertzen gabilta.

Egoitza hau behin-behinekoa da. Non irekiko da behinbetiko?

Momentuz Gila Zubiaren parean dagoen lokala kudeatuko dugu eta dakigunez beste aukera batzuk aztertzen dabilta. Udala da lokalaren eta finantziaketaren arduraduna. ☺

Tailerrak egingo ditugu, eskulanak, mahai inguruak, irteerak...

Etxabe Harategia

Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 2375

Hnos. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe


T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Gol-eko langileak protestan



Azken egunetan hainbat mobilizazio antolatu dituzte GOLeko langileek. LABeko ordezkariaren arabera, "GOLeko Zuzendaritzak garatu asmo duen Enplegu-Erregulazioko Espedienteak enpresak dituen 92 langileetatik 76ri eragingo die". Horren aurrean langileek soldataren %100a ziurtatzea, inor ez kaleratzea eta 55 urte baino ge-

hiagokoei ez eragitea eskatu dute. Bestalde, Alfa taldeko egoeratik ere kezka adierazi du LABek, "taldeko 12 lantegietatik 5 enpresetan enplegu-erregulazio espedienteak egiteko asmoa dute".

Lantegiko zuzendaritzak adierazi duenez, ez du langileen mobilizazioekin bat egiten eta oraingoz ez du inolako adierazpenik egingo. 

Ongi etorri! Korrika 16



euskaraz bizi nahi dugunon herrira

Tutera-Gasteiz 09 martxoaren 20tik apirilaren 6era

 korrika aek

Korrikaren 16. edizioan martxoaren 26an hasiko da Tutera eta apirilaren 5ean amaituko da Gasteizen. "Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira" izango da aurtengo lelo nagusia. Soraluzera apirilaren 4an helduko da Eibartik, gaueko 23:00etan eta ondoren Osintxurantz jarraituko du. Soraluzeko Korrika Batzordea datorren egunean bilduko da AEK Euskaltegian, arratsaldeko 19:30ean. Korrikaren 16. edizioan

E Aren hitzaldia

Otsailaren 21ean EAKo Gipuzkoako Zerrendaburua den Jesus Mari Larrazabal-ek hitzaldia emango du Udaltxeko Saio Aretoan (19:00etan). Bestalde, posta bidezko bozka emateko epea otsailaren 19ra arte zabalik dagoela eta Soraluzeko Alkartetxean egin ahal izango dela jakinarazi du.

D3Mren ekitaldia

Soraluzeko D3Mk domekan, eguerdiko 13:00etan prentsaurrekoa eskainiko du. Horrekin batera, otsailaren 27an egingo du hauteskundeetako ekitaldi nagusia. Bertan, "benetako demokrasiaren aldeko bozka" emateko dei egingo dutela aurreratu dute.

Aurrekontuen batzarra eguaztenean

Oposizioaren eta herritarren ekarpenak bildu eta gero, datorren eguaztenean eztabaidatuko du Udalak behin-betiko aurrekontua, arratsaldeko 19:00etan egingo duen Osoko Bilkuran.

Torturaren salaketa

Azken 30 urteotan 42 soraluzetar atxilotu eta 18k torturatu izan direla salatu du AAMk. Torturatuen testigantza "lazgarrien" berri ere eman du. Horrekin batera, otsailaren 13an Torturaren Aurkako Nazioarteko Egunean herrian egingo den mobilizazioan parte hartzeko dei egin du.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Udaltzaingoaren ordutegi aldaketa

Udalak Alkatetza Dekretu bidez jakinarazi du gaixotasun-bajarekin dagoen Udaltzaina lanera itzuli bitartean, asteburuetako Udaltzain zerbitzua goizez bakarrik izango dela. Beraz, zapatu eta domeketan 8:30etatik 14:30era egongo da Udaltzaingo zerbitzua.

Martxoaren 7an "Sexualitatea eta generoa tailerra"

Emakumeen Nazioarteko egunaren harira, Soraluze Emakume Batzordeak "Nola bizi dugu emakumeok sexualitatea? izenburua duen tailerra antolatu du. Hiru orduko saioa izango da, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko, Udaletxera deitu edo bertara jo. Arduradunak, Joana du izena eta tailerraren dinamizatzailea Eider Goiburuz izango da.

Soraluze FT-ren prentsaurrekoa

Bihar, hilak 14, Soraluze Futbol taldeko zuzendaritzak eta jokalariek prentsaurrekoa emango dute eguerdiko 13:00etan Plaza Barrian. Prentsaurrekoan futbol zelaiaren egoera salatu eta hau konpontzeko eskaera egingo dute. Jarraian, elkarretaratzea ere izango da.

Umeen kalejira berreskuratuko da aurtengo Aratusteetan

egitaraua

OTSAILAK 21, ZAPATUA

Goizeko 12:00etan

Kalejira BURUHANDI eta Musika Eskolako TRIKITILARIEKIN

Arratsaldeko 17:30ean

UMEEN KALEJIRA (Zubi Nagusitik Galtzagorri txaranga eta Kukumixokoekin)

Arratsaldeko 19:00etan

TXOKOLATADA Plaza Zaharrear

Arratsaldeko 19:30ean kalean zehar

REZIKLETA kale animazioa eta TXARANGA giroa alaitzen.

OTSAILAK 24, MARTITZENA

Arratsaldeko 17:00etan

MOZORRO LEHIAKETA haur eta lehen hezkuntzakoentzat

Arratsaldeko 17:30etatik 18:00ra

TXANRANGA kaleko giroa alaitzen

Arratsaldeko 18:30ean

TXOKOLOTTADA haur eta gazteentzat



Arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara

Dantzaldia LISKER taldearekin

Gaueko 22:30ean

Dantzaldia LISKER taldearekin

Gaueko 23:00etan

MOZORRO LEHIAKETA helduentzat

(DBhtik aurrera) ☺

ARRANO
tabernia
etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua
etxera

Merkatu Plaza
20590 Soraluze t. 943 75 24 40
eguneroko arraina eta konjelatuak
Juan Mari arraindegia

MAPFRE
SORALUZE ZERBITZUAK S.L.
Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal
Gabolatz, 5-8 Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jlibarza@infonegocio.com
Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

ELIZPE Hertz Klinika
GURE ZERBITZUAK
Ortodontzia ikustezina
Implanteak
✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA
ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)
Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67



Elkarrenganako errespetua lantzen dihardute ikastetxeko guraso, irakasle eta ikasleek

2004ko irailaren 21ean Ikasle gaztetxo batek bere buruaz beste egin zuen Hondarribian. Jokin zuen izena eta 14 urte zituen. Gertakizunak oiartzun handia izan zuen Euskal Herriko komunikabideetan eta ordutik gaur arte zeresan eta zer pentsatu asko eman du, guraso, irakasle eta ikasle askoren artean. Horren ondorioz, ikastetxe askotan elkarbizitza egitasmoak jarri dituzte martxan, Plaentxi Herri Ikastetxekoa esaterako, horietako bat da.

2004. urtean hasi ziren Soralaruzeko Lehen Hezkuntzako eskolan gaia nola landu hausnartzen. Egoeraren analisia egin ondoren, dirulaguntzak eskatu zituzten elkarbizitza egitasmoa garatu ahal izateko. 2005. urtetik aurrera elkarbizitzaren oinarriak eta helburuak lantzen eta formazioa jasotzen dihardute. Hasiera hasieratik proiektuaren arduradun nagusia den Ezoz Larrañaga irakasleak kontatu dizkigu nondik norako nagusiak.

Gatazkak konpontzeko beharra

Hasierako hausnarketan “ikastetxea bera ez zela gatazkatsua” ondorioztatu zutela esan digu Ezozik. Baina ikastetxe barnean elkarbizitza hobea bideratzeko eta ikasleen arteko gatazkak konpontzeko, “*elkarbizitza proiektua*” elkarbizitza lantzeko beharra ere ikusi omen zuten. Ikasleen arteko haserreak, irainak, errespetu faltak... heziketaren bidez bideratzeko asmoz.

Pentsamendu baikorrak lantzen

Azken urteetan gizarteko baloreak eta hauen transmisio moduak aldatu egin direla aipatu digu Ezozik. Emakumea lan munduan sartu denetik, ikastolak beste funtzio

bat hartu du eta orain ikas-materiala lantzeaz gain, baloreak ere lantzen dituzte.

Tutoretza orduetan eta ipuinen bitartez, autoestimua, autoezagutza, entzuten ikastea, gatazken ebazpena bideratzeko teknikak eta pentsamendu baikorra izatea moduko baloreak lantzen dira. Ikasleak dira gero, arauak kartulina baten idazten dituztenak. Horrela, ikasleek badakite gatazkaren bat dagoenean errespetuan oinarritutako irtenbideak zein diren. ☺

ARAUAK	ONDORIO HEZITZAILEAK
<p>Norbait hitz egiten dagoenean <u>isilik entzuten</u> diot.</p> 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Abisua eman. 2. Txanda pasa. 3. Pentsatokira joan.



ELKARBIZITZA BEHATOKIA:

ZER DA?	Ikastetxeko Elkorbizitza plana kudeatzen duen organoa da.
NORTZUK OSATZEN DUTE?	Ikasle, familia, AZP (administrazio eta zerbitzuetarako pertsonala), irakasle... Hitz batean, hezkuntza komunitate osoko estamenduetako ordezkariak.
ZERTARAKO?	Harreman positiboak sustatzeko, elkarbizitza osasungarria hedatzeko eta hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztion partaidetza bultzatzeko.




PLAENTXI LHIKO ELKARBIZITZA DEFINIZIOA:

Eskola komunitatean giro atsegina eta lasaia bermatu ahal izateko (ikasleria, irakasleria, familiak eta AZP) Plaentxi LHn elkarbizitza zer ulertzen dugu: errespetu, berdintasun, elkartasun, aniztasun, konfiantza, partaidetza eta elkarlanean oinarritzen diren harremanen oreka



Formakuntza mintegiak gurasoentzako



Lehen formazioa irakasleek jaso zuten eta ondoren hasi dira guraso, ikasle eta ikastolako langileei bideratutako formazioa lantzen. Lehenengo bileran, 80 bat gurasok hartu zuten parte. Gaur egun, 20 bat gurasok jasotzen dute "errespetuan oinarritutako formakuntza hezitzailea" urtean zehar egindako mintegietan. Aurten ere, gurasoei zuzendutako sei mintegi antolatuko dituzte. 📖

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Udalak aurkeztu ditu 2009ko Udal aurrekontuak. Oposizioaren ekarpenak jaso eta behinbetiko Udal Aurrekontua otsailaren 18an egingo den Osoko Bilkuran eztabaidatuko da.

Ze iritzi daukazu aurten Udalak aurkeztu dittuen aurrekontuen inguruan?

KOLDO HERIZ
Langabetua



Nik euskalgintzan gehixago inbertituko neuke. Alor honetarako diru gehixago luzatzia ondo egongo zan. Bestalde, gaztien alorrian be diru gehixago luzatu biharko leukiela pentsatzen dot baina futbol zelaixa konpontzia ondo pentsatzen jata.

ANDREA OLAIZOLA
Erizain laguntzailia



Futbol zelaixa oso egoera tamalgarrixan dao eta oso ondo ikusten dot hau konpontzia, ordua zan eta! Poligonoko errepidiak be konpontzeko biharra daka eta igogailuak jartzia ondo etorriko jako herrixari.

INAKI SORALUZE
Errektifikadorea



Futbol zelaixa konpontzia ondo ikusten dot; konpondu bihar dirazen gauzetan inbertitzia ondo dago eta. Herrixak bihar asko dittu baina ez dao diru askorik eta poliki-poliki egin biharko da. Umientzat parke baten proiektua botatzen dot nik faltan.

LUCIA SALINAS
Etxekoandria



Konpontzeko dagan guztixa konpontzia ondo ikusten dot eta beraiek gu baino gehixago jakingo dabe zeintzuk diran konpontzeko daguazzen proiektuak. Nere adinian igogailuak jartzia esker tzekua da.

KOMIKIXA



Proporzinuak ez dabe inporta. Herri txikiya erretonda haundixa. Eta ez badiho funtzionatzen, ba berriz itten da eta fitto!!

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaleta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752
HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Rock kontzertua gaztetxean



Otsailaren 27an, barixakua, gaueko 23:00etan Rock-a lantzen duten bi talde arituko dira gaztetxean. Foxy Boxxi eta Bitter Honey dira aipatutako taldeak.

Mus txapelketako irabazleak

Eneko Trebiño eta Jon Heriz izan ziren hilaren 8an, domekan, jokatu zen herriko Mus txapelketako irabazleak. Orain, Euskal Herriko beste herrietako irabazleekin lehiatu beharko dute.

Sagardotegira irteera



EGUNA:

Martxoak 14 (zapatua)

IZENA EMATEKO EPEA:

martxoaren 8a

IZENA EMATEKO MODUA:

Pil-pileanera deitu
(943 75 13 04) edo idatzi
(koordinazioa@pilpilean.com)

Antolatzailea:

Pil-pilean Euskara Elkartea

Santa Eskean eguneko koplak...

Elurteari aurre eginez, hamabost lagun inguru ibili ziren joan zen zapatuan baserriz baserri Santa Eskean. Dozenatik gora jatordu eginda zoro xamar amaitu omen zuten azkenean. Hemen egunean zehar kantatu zituzten koplak batzuk:

*Eurixa egin, edurra egin
trumoia edo tximista,
urtero gatoz Santa Eskian
hamar hamabost artista.*

*Etxe honetan ez dira eitten
oso gauza sentzilluak,
eitten errezak ez dira izango
Igorren kantzontzilluak.*

*Gaur gure jira ikusi eta
ez nago oso seguru,
Santa Ageda bezpera edo
Aratustiak dittugu?*

*Gaur jasotako maitasun dana
oso politta izanda,
gaurkuak hemen amaitzen dira
eskerrik asko esanda.*



San Blas opilen lehiaketako irabazleak

Maria Anjeles Zabalak irabazi zuen lehenengo saria. Bigarrena, Mertxe Arenaza izan zen eta hirugarrena Maria Asun Soraluze.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM Desing
Disèinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Pelotako herri mailako txapelketa

Martxotik maiatzera bitartean, pelota bigunekin, herri mailako txapelketa jokatu da. Txapelketaren helburua datorren urte hasierarako jubenil eta kadete mailan 3 talde sortzea izango da. Horrela, federatzeko aukera izan eta txapelketa ofizialak jokatzeko. Soraluze Pelota Taldeak 13 eta 17 urte bitarteko gazteak animatu nahi dituzte izena ematera. Entrenamenduak, astelehen eta eguaztenetan dira, 18:45etatik 19:45etara eta izena emateko, **600 72 82 66** telefonora deitu edo kiroldegira jo. 📞



EMAITZAK

FUTBOLA

Sora(Erreg.N.)-Lagun Onak	5-1
Zumaiako F.T.-Sora(Erreg.N.)	3-1
Allerru-Sora(Erreg.M.)	0-1
Sora(Erreg.M.)-Getariako Keta	1-1
Sora (Jub)-Ikasberri	0-4
Eibartarrak-Sora(Jub)	6-0
Sora(Kad)-Bergara	6-2
Ikasberri-Sora(Kad)	11-0

AGENDA

Zapatua 14, 16:00etan
Ugalde-Ventas-en

Landetxa C.D.- Sora (Erreg.M.)

Domeka 15, 16:00etan Ezozin

Sora (Erreg.N.) – Touring C.D.

Zikloturismoko lizentziak berritzeko aukera



Gipuzkoako Txirrindularien Elkarteak zabaldu ditu 2009ko lizentziak berritzeko datak. Honetarako, beharrezkoa da ordainagiriarekin batera norberaren datuekin betetako fitxa Gipuzkoako Federaziora bidaltzea. 80 eurokoa izango da berriz ere aurtengo kuota eta honako kontu korrontean sartu beharko da dirua: **21010116580010309359 (kutxa)**. Juan Mari Oregi da arduraduna (**607 38 83 72**). 📞

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

MARE ILEAPAINDEGIA



ESTETIKA
SOLARIUM


Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

GAZTELUPE taberna

tel: 943 75 20 81



ZORION AGURRAK




Eneko Perez
Otsailaren 19an sei urte!!
Zorionak eta muxu haundi bat gure bihurriarentzat! Anaia, Oier eta lehengusina Amuitz eta Garazin partez!



Israel Axecilla
8 urte betetzen dittuzulako!!
Zorionak zure guraso eta familixian partez!!




Josune Egaña Txurruka
Otsailaren 11an 20 urte
Zorionak Rokera!!
Egun ona izan, maitasunez etxeko guztien partez!



Zorionak Unai!!
Otsailaren 15rako besarkada haundi bat ta 30 belarri tirakada. Pil-pilean Euskara Elkarteko sendiaren partez.



Imanol Bermudez Txurruka
Otsailaren 29an 21 urte
Zorionak danon partez eta beti bezain jator jarraitu!



Janire Muñoz Pellitero
Martxoaren 8an urtebete
Asko maite zaitugu!!
Muxu asko etxekoan partez!



Nahia Osoro Erkizia
Otsailaren 11an urtebete!
Patxo haundi bat
Etxekoan partez!



Javier Plata
Martxoaren 4an 2 urte!
Zorionak politta!
Etxekoan partez



Otsailaren 15ean 18 urte!
Zorionak familiakoan partez eta muxu haundi bat etxekoan eta aitona-amonen partez asko maite zaituztelako!



Ander eta Gorka Zabala Iraolagoitia
Urtarrilaren 29an 5 urte
Otsailaren 21ean 7 urte
Zorionak bikote!!
Oin arte moduan baserritar jatorrak izaten jarraitu!
Muxu haundi bat!



50 urte ezkontuta!!
Bikote guztiek ez dutelako horrenbeste denbora elkarrekin egotea lortzen... ZORIONAK!
Muxu asko familixian partez!

IRAGARKIAK

Lan eskaintza:

Emakumeak behar dira bitxiak, moda eta edertasuna lantzeko produktuak saltzeko. Salmenta zuzena.
Kontaktua: **Mila (685 78 72 32)**

jaiotakoak



UNAI CALLES AGIRRA
DIEGO ALEXANDER RIEZZO BOLINA

LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► Ze urtetan inauguratu zan Soraluzeko Futbol zelaixa?

1983. urtean
1985. urtean
1981. urtean

► **Saria:** Iñarra harategian gastatzeko 30 €ko bonoa!

► **Irabazlea:** **Lierni Santana**



► "Beti aserre dago gure neska zarra, goizian goizetikan jatendu piparra, ezin degu sufritu ain jenio txarra".
Kopla hau, abesti baten amaieria da eta inauterixetan kantatzen zan.

ARGAZKI ZAHARRA



Irudia: Maria Anjeles Zabala

SAN BLAS EGUNA GOGUAN

Argazki hau 1956kua da, San Blas egunian ateratakua oin dala 53 urte. Eliza azpitan dago aterata, katarrua eta eztarriko gaitzak sendatzeko San Blas opilak bedeinkatu ostian, tradizioak esaten daben moduan.

Emilia Morillo (*ama*) †
 Maria Anjeles Zabala (*alaba*)

